

Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektoriala

Consejo Sectorial de Memoria Histórica

Deialdia egin duena Convoca	Donostiako Udala Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua Fecha, lugar y hora	2021ko ekainaren 9a / 9 de junio de 2021 Udaletxeko Pleno aretoa / Salón de Plenos del Ayuntamiento 18:00etan / A las 18:00 horas
Amaiera ordua Hora de finalización	18:45etan / A las 18:45 horas

GAI-ZERRRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

- | | |
|--|--|
| 1.- Aurreko saioaren akta onartzea. | 1.- Aprobación del acta de la sesión anterior. |
| 2.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak. | 2.- Actividades en torno a la Memoria Histórica. |
| 3.- Instrukzio epaitegietan egozgarriak diren udal kasuak aztertzekeo lantaldearen egoera. | 3.- Situación del grupo de trabajo para el estudio de los casos municipales imputables en los juzgados de instrucción. |
| 4.- Memoria Demokratikoaren lege aurreproiektuaren balorazio lantaldearen ondorioak. | 4.- Conclusiones del grupo de trabajo del anteproyecto de Ley de Memoria Democrática. |
| 5.- Bestelakoak, eskariak eta galderak. | 5.- Varios, ruegos y preguntas. |



BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Alkatea Alcalde
GIZA ESKUBIDEETAKO ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA CONCEJALA DELEGADA DE DERECHOS CIVILES	
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	1. EAJ-PNV 2. PSE-EE 3. ELKARREKIN PODEMOS 4. EH BILDU
KONTSEILUKO BOKALAK VOCALES DEL CONSEJO	1. Altunaberrri Kultur elkarte 2. Lantxabe asoc. De vecinos 3. Genozidioaren biktimen elkarte 4. LAB udal sail sindikala 5. Aranzadi 6. Ospe bereziko pertsona 2 / Persona de especial relevancia nº2
ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA EXCUSARON SU ASISTENCIA	EDE Fundazioa Euskal Memoria Fundazioa Valentin de Foronda Institutoa Hamaika Bide elkarte Miguel Aranburu asoc. de historiadores Goldatu 1.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1 2.Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 2 Ospe bereziko pertsona 1/ Persona de especial relevancia nº1 Ospe bereziko pertsona 3/ Persona de especial relevancia nº3
UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	Kontseiluaren Idazkaritza. Giza Eskubideen teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Derechos Humanos
	Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren zerbitzu burua Jefe del Servicio de Promoción Social y Educación
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	14 OHKSeKo pertsona kideak jarraian adierazten direnak barne: Gizarte Sustapenaren eta Hezkuntzaren zerbitzburua eta Kontseiluko idazkaria. Emakumezkoak / Mujeres = 4 Gizonezkoak / Hombres = 10 14 personas integrantes del CSMH, incluidos el Jefe del Servicio de Promoción Social y Educación y la secretaría del Consejo.



Saioaren bilakaera / Desarrollo de la sesión:

BATZORDEBURUAK bilkura hasitzat jo ondoren, honako GAI ZERRENDA lantzeari ekin diote:

1.- Aurreko saioko akta onartzea

Akta aho batez onartu da.

2.- Oroimen Historikoaren inguruko ekimenak

Arloko buruak ikastetxeekin egindako bisita gidatuen berri eman du. Bisita horiek hilabete honetan amaitu dira, eta edukierari eutsita osatu dira.

Bisita antzetzuei buruz esan du iraileko asteburuetan egingo direla. Gaineratu du irailaren 13an, Donostiako Memoria Historikoaren Egunean, iazkoa bezalako lore eskaintza egingo dela.

Horrez gain, Ekialdeko Barrutiko Batzarrean, Altza Historia Mintegia elkarteak aurkeztutako proiektu bat onartu dela adierazi du. Bertan, 1931eko Altzako alkatetza omentzeko eta oroitzeko ekitaldi bat egitea proposatzen da.

3.- Instrukzio epaitegietan egozgarriak diren udal kasuak aztertzeko lantaldearen egoera.

Lehendakariordeak azken Batzorde Iraunkorrean zerrenda bideratzeko prest edukiko zutela azaldu du baina azken bileran zenbait gai jorratu gabe geratu zirenez hurrengo bilerarako aurkeztu ahal izango dela dio.

Lehendakariak dokumentazioa aztertuko duela adierazten du eta gaia Giza Eskubideen Batzordera eramatea planteatu du. Batzorde honetan behin onartuta, Udal mailan Idazkariak gaia nola bideratuko den esango du.

4.- Memoria Demokratikoaren lege aurreproiektuaren lantaldearen ondorioak.

Lehendakariordeak lantaldeak hasieratik egindako ibilbidea deskribitzen du, baita nola bukatu den ere, Kontseiluko ordezkari

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

1.- Aprobar el acta de la sesión anterior

Se aprueba el acta por unanimidad.

2.- Actividades en torno a la Memoria Histórica

El jefe del área, informa sobre las visitas guiadas con los centros educativos que han finalizado este mes con el número de grupos completado manteniendo el aforo.

Sobre las visitas teatralizadas indica que se llevarán a cabo los fines de semana de setiembre. Añade que en el Día de la Memoria Histórica de Donostia, 13 de setiembre, se llevará a cabo una ofrenda floral como la del año pasado.

Además señala que en la Junta del Distrito Este se ha aprobado un proyecto, presentado por la asociación Altza Historia Mintegia, en donde se propone llevar a cabo un acto en homenaje y recuerdo a la corporación de la alcaldía de Alza de 1931.

3.- Situación del grupo de trabajo de análisis de los casos municipales imputables en los juzgados de instrucción.

El vicepresidente, explica que en la última Comisión Permanente dijo que la lista estaría preparada para presentarla, pero que al quedar algunos temas pendientes en la última reunión se presentará en el próxima pleno.

El Presidente comunica que analizará la documentación y plantea llevar el tema a la Comisión de Derechos Humanos. Una vez aprobado en esta Comisión, a nivel municipal el Secretario dirá cómo se va a enfocar el tema.

4.- Conclusiones del grupo de trabajo del anteproyecto de Ley de Memoria Democrática.

El vicepresidente describe el recorrido del grupo de trabajo desde su comienzo y cómo se ha completado, con los 4 textos remitidos a las y



bidalitako 4 testuekin. Adierazi du talde horren lana ez dela amaitu, komenigarritzat jo baita lege aurreproiektuaren jarraipena egitea Senatuan.

Altunaberriko ordezkariak azaldu du bere testuan lege aurreproiektuaren ibilbideaz gain abian jar daitezkeen proposamenak aurkeztu direla. Horregatik, proposamen batzuk aukeratzea proposatu du, gero aurreko proposamen zerrendan sartu ahal izateko.

Lehendakariaren ustez, Kontseilua osatzen duten pertsona guztiei aukera eman beharko litzaieke Kontseiluan adostutako proposamenak aurkezteko. Lehendakariak eskerrak eman dizkio taldeari egindako lanagatik, eta gaineratu du jasotako proposamenak aztertu eta kontuan hartuko direla.

5.- Eskariak eta galderak.

Arloko buruak, batetik, l jentea kaleko DUAL eskulturan egindako konponketen berri eman du, eta, bestetik, Larramendi eta Urbieta kaleen arteko bidegurutzeari atrila nola jarri den azaldu du.

Elkarrekin Podemoseko ordezkariak udal Gobernuari helarazitako proposamenen berri eman du. Lehenik eta behin, Urgulleko Bihotz Sakratuaren bersignikatzea, zinegotzi delegatuaren arabera aztertuko dena. Bigarrenik, Uliako hobiaren inguruan prospekzioak egiteko eta Eusko Jaurlaritzari hura berreskuratzeko eskatzeko aukera planteatu du. Azkenik, 1931n Ategorrietan eraildakoei dagokienez, 90. urteurrenean egin ez den oroitzapenezko ekitaldi bat egitea eskatu zela dio, eta garrantzitsua iruditzen zaio ekitaldi hori hurrengo urteurrenean egitea.

Eskubide Zibilen zinegotzi ordezkariak erantzun du Gobernuak emandako erantzunak atalean ari direla gauzatzen. Argitu duenez, Ategorrietako hilketen 90. urteurrenaren ospakizunari dagokionez, ekitaldi bat egin nahi zuten, baina ez ziren iritsi eta bat zetorren Gobernuaren Osoko Bilkura egunarekin. Hori dela eta, Adierazpen Instituzional bat egin da, Donostiako Udalak eta Pasaiaiko Udalak sinatu dutena. Horrela, atril bat jarri behar da eta bi udalek ekitaldi bateratu bat egingo dute.

los representantes del Consejo. Indica que el trabajo de este grupo no ha terminado, al estimar conveniente hacer un seguimiento del anteproyecto de ley en el Senado.

El representante de Altunaberri expone que en su texto se han presentado propuestas que, más allá de la trayectoria del anteproyecto de ley, se pueden poner en marcha. Por lo que propone elegir algunas de las propuestas para que luego puedan ser incluidas en el listado anterior.

En opinión del Presidente se debería dar opción a todas las personas integrantes del Consejo para que también puedan presentar propuestas que sean consensuadas en el Consejo. El Presidente da las gracias por el trabajo realizado al grupo y añade que las propuestas recibidas se analizarán y se tomarán en cuenta.

5.- Ruegos y preguntas

El jefe del área informa por un lado, sobre los arreglos realizados en la escultura DUAL de l jentea y, por otro, sobre la colocación del atril en el cruce de la calle Larramendi con Urbieta.

La representante de Elkarrekin Podemos da a conocer las propuestas trasladadas al Gobierno municipal. En primer lugar la resignificación del Sagrado Corazón de Urgull, la cual se va a estudiar según la concejala delegada. En segundo lugar, en torno a la fosa de Uli se planteó la posibilidad de hacer prospecciones y solicitar al Gobierno Vasco que proceda a su recuperación. Por último, en relación a los asesinados en Ategorrieta en 1931, informa que se solicitó hacer un acto conmemorativo en el 90 aniversario que no se ha hecho y le parece importante que se lleve a cabo en su próximo aniversario.

La concejala delegada de Derechos Civiles responde que efectivamente las respuestas dadas por el Gobierno se están llevando a cabo desde el departamento. Aclara que en relación a la conmemoración del 90 aniversario de los asesinatos de Ategorrieta, se quería llevar a cabo un acto pero no se llegó y coincidía con el Pleno del Gobierno, por lo que se ha redactado una Declaración Institucional que ha sido firmada tanto por el Ayuntamiento de Donostia como por el de Pasaia. Así, se prevé colocar un atril y hacer un acto conjunto los dos Ayuntamientos.



Aranzadiko ordezkariak, Uliako hobi komunari dagokionez, erantzun du Aranzadiren bi txosten daudela, Paco Etxeberriak egindakoak, zeinetan aipatzen da hobi komunaren kokapena ez dela oso zehatza. Hala ere, ez du baztertzen prospekzio berriak egitea.

Aiete-Lantxabe elkarteko ordezkariak Batzorde Iraunkorrean egin zuen bezala, Urgulleko Bihotz Sakratuaren bersignikatzeari buruzko jarraipena egitea eskatu du. Lehendakariak adierazi du bere eskaera kontuan hartuko dela eta erabakiren bat hartzen dutenean jakinaraziko zaiela.

Hala, beste aztergairik ez denez, 18:45ean bukatutzat jo dute bilera.

Aktaren egilea: Idazkariak.

El representante de Aranzadi en relación a la fosa común de Ulía, responde que hay dos informes de Aranzadi realizados por Paco Etxeberria, en los que se menciona que la localización de la fosa común no es muy exacta. Aún así no descarta realizar nuevas prospecciones.

El representante de la Asociación Aiete-Lantxabe, solicita, como lo hizo en la Comisión Permanente, hacer seguimiento en relación a la resignificación del Sagrado Corazón de Urgull. El Presidente manifiesta que se tomará en cuenta su petición y en cuanto tomen alguna decisión se les comunicará.

No habiendo más temas que tratar, se da por finalizada la reunión a las 18:45 h.

Recoge el acta: Secretaría.